# Beaz Bizkaia

**Ekintzailetzaren bidetik aurrera**
Progressing through entrepreneurship





# “Proiekturik onenak erakarri nahi ditugu Bizkaira”

# “We want to attract the best projects to Bizkaia”

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak, Imanol Pradalesek, ez du foru programarik aipatzen Bizkaiko Foru Aldundiak ekintzailetzaren gaian duen estrategiaz galdetzen zaionean, ilusioak eta proiektuak baizik. Eta Aldundira heltzen diren proiektu guztien artean diputatuak bat nabarmentzen du: jauzi kualitatiboa ematea Bizkaia ekintzaileentzat benetan erakargarria den leku bezala errekonozitua izan dadin. *“Horretaz ari gara Bizkaian ekintzailetzaren hub bat sortzearen aldeko apustua egiten dugunean, enpresa berritzaile berriak abian jartzeko ardatz atlantikoko lekurik onena bezala ezagunak eta errekonozituak izateko, erraztasunak eskaini, tresnak dauzkan eta startupen aldeko apustua eta inbertsioa egiten duen lurralde bezala”*, dio Pradalesek.

The deputy of Economic and Territorial Development, Imanol Pradales, does not mention regional programmes but illusions and projects when he is asked by the strategy of the Provincial Council of Bizkaia in matters of entrepreneurship. And among all those projects that come to the Council, the deputy highlights one of his own: make a qualitative leap so that Bizkaia is recognised as a truly attractive place for entrepreneurs. *“That’s what we talked about when we set out to create a hub of entrepreneurship in Bizkaia, to be known and recognised as the best place on the Atlantic axis to launch new innovative companies, a territory that makes things easy, offering tools and support, and that invests in startups”*, says Pradales.

**Imanol Pradales**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua
Provincial Deputy of Economic and Territorial Development

## “Gure startupei aukera ematen diegu berrikuntzaren ekosistema handienetariko batean aholkularitza eta trebakuntza jaso dezaten”

**Zein da zure ustez Bizkaiaren egoera ekintzailetzaren ikuspegitik?**

Ez gara berriak honetan. Bizkaiko Foru Aldundia duela 30 urte ari da lanean lurraldean erreferentziako ekintzailetza-sistema lortzeko, eta lortzen ari garela uste dut. Aukera eta pizgarri asko eskaintzen dugu ideia on bakar bat ere tiraderan gordeta geldi ez dadin: aholkularitza eta trebakuntza pertsonalizatuak, diru-laguntzak, finantzazioa lortzeko erraztasunak, mentoreak, nazioarteko nodoak…

Joan den 2016. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak 560 enpresaren proiektuei eman zien laguntza eta horren ondorioz 1600 lanpostu sortu ziren eta 287 milioi euroko fakturazioa ekarri zuten arlo honetan. Inbertitu den euro publiko bakoitzeko 20 itzuli dira gure gizartera. Gizarte errentagarritasuna eztabaidaezina dela uste dut. Proiektu guztietatik 110 ekintzailetzakoak izan ziren.

**Ekintzailetza bultzatzea zure Sailaren ardatz estrategikoetako bat da legegintzaldi honetan. Zeintzuk dira zuen apustu berriak?**

Ekitea eta berritzea txanpon bereko bi aldeak izan ohi dira. Guk gai honetan enpresen berrikuntza bultzatzeko finantza tresna berriak sortzearen aldeko apustua egin dugu. Gainera, berrikuntza irekia sustatzen duten ekimenak sustatzen ditugu, enpresa eragile, negozio-ideia berri, startup, unibertsitate eta abarren artean harremanak sortuz.

Halaber, oso hitzarmen garrantzitsuak egin ditugu nazioarteko erreferentziako nodoekin, Bostonekin esate baretako. Gaur egun esan dezakegu Bizkaiak ekintzaileen enbaxada txiki bat daukala Bizkaiko Foru Aldundiak munduko enpresa-bizkortzaile handienetako birekin lortutako akordioei esker: CIC Cambridge eta MassChallenge-rekin. Gure startupei aukera ematen diegu berrikuntzaren ekosistema handienetariko batean aholkularitza eta trebakuntza jaso dezaten. Badugu Estatu batuetako ekialdeko kostaldera sartzeko ate bat zabalik eta aprobetxatu egin behar dugu.

**Zer dauka Bostonek Bizkaiak ez daukanik?**

Massachussets Estatu Batuetako estaturik txikienetakoa da, baina mundu osoan errekonozituta dago bere unibertsitateen kalitate handiarengatik eta ekintzailetza eta berrikuntzaren meka bezala.

Hori bakarrik ez, Boston nabarmendu egiten da bere unibertsitate eta zentro teknologikoetatik ateratzen den startup kopuru handiarengatik eta jakintza-zentroen eta enpresen artean dagon elkarrekintza mamitsuarengatik. Hauxe da Bizkaiarentzat nahi dugun eredua. Konexio hauek sakondu nahi ditugu, funtsezkoa delako jakintzak, teknologiak eta enpresa-egiturak elkarreragin dezatela enpresa berritzaileak sortzeko eta garatzeko.

**Nola hurbil daiteke eredu horretara Bizkaia?**

Berrikuntzaren ekosisteman gauden eragile publiko eta pribatuen artean ahaleginak biltzen aurrera egin behar dugu. Masa kritiko handiagoa eta harreman estuagoa sortu behar dugu enpresa eragile, enpresa-ekimen berri, inbertsiogile pribatu eta publiko, unibertsitate eta zentro teknologiko eta abarren artean.

Osagai guztiak dauzkagu baina plater berean batzea falta zaigu. Batzuetan ez ditugu ondo bateratzen geure gaitasunak eta arlo honetan hobetzea gure esku dago.

Nazioarteko aukerak ere baliatu behar ditugu. Atzerrian gehiago nabarmendu behar dugu. Hori soilik lortuko da ekintzailetzari dagokionez munduko leku berritzaileenetan (Boston, Silicon Valley, Helsinki, Estockholm, Londres, Tel Aviv…) joan-etorriko bideak ezartzen baditugu.

Arrazoi hauek bultzatzen gaituzte ekintzailetzaren erreferentziako nazioarteko zentro bat izango duen huba abian jartzera, liga global horretan jokatu ahal izateko. Bizkaiko proiekturik onenak edukitzeaz gain, Bizkaitik kanpoko proiekturik onenak erakarriko dituena, behintzat gure eragin-*hinterlanda* den ardatz atlantikoan…

**Etorkizuneko proiektu itxaropentsua da.  Nola ikusten duzu txanda-aldaketa, badago masa kritikorik gazteen artean?**

Gainditu gabeko ikasgaia da. Argi eduki behar dugu zein garrantzitsua den gaztetatik zientzia eta ekintzailetza kultura indartzea.

2017-2018 ikasturte honetan ekintzailetza-kultura bultzatzeko Egin eta Ekin programak 10 urte beteko ditu. Ez da agian ezagunena izango, baina Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak urtero antolatzen ditu bigarren hezkuntza eta batxilergoko ikasleen artean sormen-pentsamendua eta ekintzailetza-kultura sustatzeko lantegiak. Urteotan 5400 gazte baino gehiagok parte hartu dute zenbait ekintzatan, jokabide proaktiboak eta gogoak sustatzeko, erabakiak hartzea bultzatzeko…

Etorkizuneko ekintzaileak dira. Proiektu berriei ekiteko, arriskatzeko eta berritzeko garrantzia baloratzen duen eta talentua ekonomikoki eta gizartean errekonozitua dagoen lurralde batean haz daitezen gustatuko litzaidake.

**How do you assess the situation in Bizkaia from the point of view of entrepreneurship?**

We are not new to this. The Provincial Council of Bizkaia has been working for 30 years to generate an entrepreneurial ecosystem of reference in the territory, and I believe we are achieving it. We offer a wide range of options and incentives so that not a single good idea stays on the back burner: personalised advice and training, financial aid, access to finance, mentors, international nodes…

In 2016, the Provincial Council of Bizkaia supported 560 business projects, which have generated 1,600 jobs and a turnover of 287 million euros. The investment of the department was 15 million euros in this area. For each public euro invested, 20 have returned to our society. I think social profitability is unquestionable. 110 of them were entrepreneurship projects.

**The promotion of entrepreneurship is one of the department's strategic axes for this term, which are the new bets?**

Entrepreneurship and innovation are usually two sides of the same coin. In this sense, we have opted for the generation of new financial instruments for business innovation. Also, for other initiatives that promote open innovation starting from the connection between reference companies, innovative business ideas, startups, investors, universities, etc.

Additionally, we have agreed very important alliances with reference international nodes, such as Boston. Today, we can say Bizkaia has a small embassy of entrepreneurs thanks to the agreements of the Council and two of the most important accelerators in the world: CIC Cambridge and MassChallenge. We are giving our startups the opportunity to get advice, training and contacts in one of biggest innovation ecosystems. We already have a gateway to the east coast of the United States, and we have to make the most of it.

**What does Boston have that Bizkaia does not?**

Massachusetts is one of the smallest states in the United States, but is recognised worldwide for the high quality of its universities and as a Mecca for entrepreneurship and innovation.

Not only that, Boston stands out for the high number of startups that emerge from its universities and technological centres, and the great interaction between knowledge centres and companies. That is the model we want for Bizkaia. We want to deepen these connections because it is fundamental that knowledge, technology and business fabric interact for the generation and development of innovative companies.

## “We are giving our startups the opportunity to get advice, training and contacts in one of biggest innovation ecosystems.”

**How can Bizkaia get closer to that model?**

We must advance in the concentration of efforts between the different agents that are in the ecosystem of innovation, public and private agents. We must aspire to generate a greater critical mass and a closer relation between the driving force companies, new business initiatives, private and public investors, universities and technological centres, etc.

We have all the ingredients but need to concentrate them on the same dish. Sometimes our skills lack alignment, and improving on this issue is up to us.

We must also play the international game. We need more visibility abroad. This is only achieved through the establishment of round trip channels with the most innovative places in the world in terms of entrepreneurship (Boston, Silicon Valley, Helsinki, Stockholm, London, Tel Aviv …).

These are the reasons that move us to launch a hub that has an international centre of entrepreneurship as a referent, which aspires playing in that global league. A centre that has the best projects in Bizkaia, yes, but above all that attracts the best projects from outside Bizkaia, at least on the Atlantic axis, which is our hinterland of influence…

**It is an exciting project for the future. How do you see the generational replacement, is there a critical mass among the young?**

It is a pending subject. And we must be aware of the importance of reinforcing the scientific culture together with the entrepreneurial culture from an early age.

This year 2017-2018, the “Egin eta Ekin” entrepreneurship promotion programme is 10 years old. It may not be known by everyone, but every year the Department of Economic and Territorial Development organises workshops aimed at promoting creative thinking and entrepreneurial and business culture among secondary and high school students. In these years more than 5,400 kids have participated in activities designed to promote proactive attitudes, interests, motivate decision-making…

They are the future entrepreneurs. I would like them to grow in a territory that values the importance of entrepreneurship, risk, and innovation, and where the talent is recognised economically and socially.



# “Konexio-gunea izan nahi dugu, loturak oinarrizkoak dira”

“We want to be a connection node, a place where links are essential, frequent and intense”

**Zergatik du lehentasuna Aldundiarentzat Bizkaia ekintzaileetzaren erreferentzia bihurtzeak?**

Zenbait arrazoirengatik. Alde batetik, Bizkaia ekintzaileentzako inguru erakargarria da. Berrikuntza eta talentuaren sare zabala daukagu, hiru unibertsitate eta zientzia-teknologia arloko hainbat eragile, zerga sistema propioa, azpiegitura eta konexio onak, bizi-kalitate maila ederra, Europako industria eskualde lehiakorrenetakoen artean gaude... Eta, gainera, gure erakundeak konprometiturik daude enpresen garapen berritzailearekin, konpromiso hori zentzu zabalez hartuta. Helburua ez da bakarrik ekintzaileei diru-laguntza eta zerbitzuen bidez laguntzea, berrikuntzaren prozesua dinamizatuko duen ekosistema bat sortzea baizik, behartu gabe bultzatzeko.

**Ekintzaile batek administrazioaz pentsatzen duenean diru-laguntzak izaten ditu buruan. Eredu hau gaindituta dago?**

Bai eta ez. Ekintzailetza-proiektuak beren etapetan bultzatzen dituzten diru-laguntzak garrantzitsuak dira sustatzaileentzat. 145 000 €-rainoko diru-laguntza jaso daiteke enpresa sortu aurreko gastuetarako eta finkatze eta bizkortze-gastuetarako. Baina badaude beste finantzabide eta beste laguntza batzuk ere eta proiektuen heldu-tasuna eta hazkundea lortzea erraztu dezakete.

**Zeintzuk dira beste laguntza-bide horiek?**

Esate baterako, Bizkaiko zortzi inkubagailuak; izan ere, bertan ehun enpresatik gora daude kokatuta, 566 lanpostu baino gehiago sortu dituzte eta 28 M € fakturatzen dituzte; Bizkaia Mentoring Network sareak aukera ematen du ekintzaileek mentoreak eduki ditzaten, beren ahalbideak hobetzen laguntzeko; Open Innovation dinamikek aukera ematen diete startupei enpresa eragile eta erreferenteekin elkarlanean aritzeko; hor daude Aldundiak munduan erreferentzia diren ekintzailetza-nodoekin hitzartu dituen lankidetza-programak ere, edo proiektuei balioa ematen dieten ekintzailetza-ekosistemako eragileekin konektatzeko lana.

**Lotura mentore, enpresa erreferente eta nazioarteko nodoekin. Bultzatzen ari zareten ekintzailetza-gune horren gakoetako bat lankidetza da?**

Funtsezkoa da. Egia esan konexio-gunea izan nahi dugu, loturak oinarrizkoak, maiztasun handikoak eta mamitsuak izango diren lekua. Administrazio guztien artean; enpresa, unibertsitate eta teknologia zentroen artean; inbertsio publiko eta pribatuaren artean; esperientzia eta jakintza dutenen eta hasi berriak direnen artean; elkarrekin eta munduaren eta Bizkaiaren artean proiektuei ekiten dietenen artean.

**Hori ez da berrikuntza behartzea, lehenago esan duzunez saihestu behar zena?**

Ez, alderantziz. Berrikuntza ahalbidetzea da. Ekintzaileak beren proiektuekin bakarrik senti ez daitezen egitura bat eskaintzea da, berritzen jarraitzeko akuilua izango den komunitatearen barruan, elkarren eraginez berrikuntza denena izango delako. Azterketek diotenez, ekintzailetzaren oztopo nagusietako bat porrot egiteko beldurra da. Gizarte bezala gure etorkizuna geldiarazten duen sentimendu hori alde batera utzi behar da.

**Nora joan behar du ekintzaile batek Bizkaian dauden laguntzak zehaztasunez ezagutzeko?**

Beazen informazioa ematen dugu diru-laguntza programei buruz eta mentoring, enpresa-bizkortze, nazioarteko esperientzia, inkubagailu eta beste ekimen batzuei buruz, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eta Aldundiak ekintzaileei ematen dizkieten gainerako laguntzen berri emateaz gain. Sakonago, Seed Capital-en aholkularitza emango diote arrisku-kapital, crowdfounding eta beste finantzabide batzuei dagokienez; Azpiegiturak-en enpresak kokatzeko Elkartegiak Programari buruz, eta Bizkaia Talent-en argibideak eskainiko dituzte nazioarteko ekitaldi eta azoketan parte hartzeaz, Be Basque Talent Network Sarean sartzeaz (88 herrialdetako 8000 profesionaletik gora), eta lanbide eta lan-orientabidea ematen duen Talentia Programaz. Antolakunde bakoitzak leihatila bakar gisa dihardu, laguntzarik egokiena eskaini ahal duen ekositemako pertsonarengana bideratzeko.

**Why one of the priority objectives of the Provincial Council is to turn Bizkaia into a reference in entrepreneurship?**

There are many reasons. On the one hand, a series of facts that make Bizkaia an attractive environment for entrepreneurship. We have a wide network of innovation and talent, three universities and several scientific-technological agents, an own tax system, good infrastructures and connections, high quality of life, we are considered as one of the most competitive industrial regions in Europe,... and in addition, our institutions are committed to an innovative business development, understanding that commitment in a broad sense. It is not only about supporting entrepreneurs with grants and services, the objective is to create an ecosystem that dynamises the innovation process, which makes it possible without forcing it.

**When entrepreneurs think about the government, they think on financial support. Do you still use this support model?**

Yes and no. The different financial aid programmes for entrepreneurship projects are important for promoters. They can come to receive € 145,000 for the preliminary cost of the setting-up of the company, consolidation and acceleration costs. But there are other ways of financing and other supports that can also be a key impulse that facilitates the maturation and growth of projects.

**What do you mean?**

For example the eight Biscayan incubators that house over a hundred companies, which have generated 566 jobs and invoice € 28M; the Bizkaia Mentoring Network that provides mentors to help entrepreneurs to optimise their potential; the Open Innovation dynamics that allow startups collaborate with leading and reference companies; the collaboration programmes that the Provincial Council has agreed with entrepreneurial nodes that are a world reference, such as CIC and MassChallange in Boston and Israel.

**Links with mentors, reference companies, and international nodes, is collaboration one of the key aspects of the entrepreneurship hub you are promoting?**

It is its essence. Actually, what we want to be is a connection node. A place where links are essential, frequent and intense. Among different governments; companies, university and technology centres; between public and private investment; between those that have experience and knowledge and those who begin; among the entrepreneurs themselves; between the rest of the world and Bizkaia.

**And all this, is not a way of forcing innovation? Something that as you said before, you try to avoid?**

It is just the opposite. It is to make it possible. It is to foster a structure where entrepreneurs do not feel alone with their projects, but part of a community that encourages them to continue innovating because, through them, it innovates itself. According to studies, one of the biggest barriers to entrepreneurship is the fear of failure. We have to end this feeling that acts as a brake on our future as a society.

**Who should contact an entrepreneur who wants to know in detail the support in Bizkaia?**

In Beaz we inform about the aid programmes of the Provincial Council on mentoring, acceleration, international experiences, incubators, etc, in addition to other support services provided to entrepreneurs by the Department of Economic and Territorial Development and by the Council. More in detail, Seed Capital can advise them on financing, venture capital, crowdfunding... Azpiegiturak, on the Elkartegiak Programme for business location; Bizkaia Talent, on how to take part in international events and fairs, enter the Be Basque Talent Network (more than 8000 professionals from 88 countries), and about the Talentia professional and labour counseling pogramme.

**Ainara Basurko**

Beazko zuzendari nagusia
General manager of Beaz

# Zerbitzu eta ekimenak
# Services and Initiatives



Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu-aukera zabala eskaintzen die Bizkaiko enpresa eta ekintzaileei, haien lehiakortasuna sustatzeko eta lurraldea enpresa-garapen berritzailearen erreferentzia  bihur dadin.

Gainera, beste zenbait ekimen bultzatzen ditu berrikuntza eta ekintzailetza prozesuak dinamizatzeko xedeaz: Bizkaia Mentoring Network sarea, hazteko ahalmen handia daukaten proiektuak garatzen ari diren startupei esperientzia handiko profesionalen lankidetza emateko; Bizkaia Open Future_ eta BIND 4.0 bezalako berrikuntza irekiko programak; MassChallenge eta Cambridge Innovation Center nazioarteko nodoekin sinatutako lankidetza-hitzarmenak; Dirulaguntza-Mapa zerbitzua...

The Provincial Council offers companies and entrepreneurs of Bizkaia a wide variety of services in order to foster competitiveness and to make the territory a reference in innovative business development.

It also promotes various initiatives aimed at boosting innovation and entrepreneurship processes: the Bizkaia Mentoring Network, which offers the collaboration of professionals with extensive experience to startups that develop projects with high growth potential; open innovation programmes, such as Bizkaia Open Future_ and BIND 4.0; collaboration agreements with international nodes such as MassChallenge and Cambridge Innovation Center; the Aid Map service...

## Enpresen sorkuntza

Programa honek erraztu egiten du enpresa proiektu berritzaileak abian jartzea, enpresa berriak sortzea eta bizkortze-proiektuak garatzea.

Laguntza ematen die pertsona fisikoei, ETE berriei eta egon badauden enpresei –barne-ekintzailetzaren bidez–, negozio-unitate berriak sortzea erabakitzen dutenean.

Proiektu berritzaile bat baduzu, programa zabal hau baliatu ahalko duzu.

**2017ko hornidura: 2 750 000 €**

**Diruz lagun daitezkeen gastuak:**
- Enpresa proiektua edo, barne-ekintzailetza-proiektuetan, negozio-unitate berria zehaztea.
- Enpresa berritzaile berriak sortzea.
- Teknologoa edo negozioaren garatzailea kontratatzea.
- Enpresak bizkortzeko proiektuak garatzea.

## Creation of companies

Programme that facilitates the implementation of innovative business projects, the creation of new companies, and the development of acceleration projects.

It supports both private individuals and new SMEs and even existing companies that decide to create new business units through intra-entrepreneurship.

It is a versatile programme for your innovative projects.

**2017 Budget: €2,750,000**

**Expenditures eligible for subvention:**
- Definition of the business project or the new business unit in intra-entrepreneurship projects
- Creation of new innovative companies
- Hiring a technologist or business developer
- Development of business acceleration projects



*"Laguntza honen bidez aukera izan dugu Lurraldetik kanpoko bazkideei erakundeen seriotasun eta bultzada erakusteko eta, eman beharreko urratsei dagokienez Beazek emandako aholkuei esker, abian jartzeko etapa gogorra gainditzeko."*

Juan Tomás Hernani,
Satlantis-eko zuzendari nagusia

*"This support has allowed us to show the seriousness of the institutions and their accompaniment to partners outside the Territory and to overcome a tough period, thanks to the technical advice received from Beaz regarding the steps we should follow".*

Juan Tomás Hernani,
Managing Director of Satlantis

## Bizkaia Sortzailea

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak industria diseinu, ikus-entzunezko, bideojoko eta modan espezializatutako sormen-enpresetan proiektu berriak sustatzeko eskaintzen dituen diru-laguntzak.

Proiektuak egon badauden enpresek nahiz lantalde sortu berriek bultza ditzakete. Lehenengo kasuan, proiektuak garatzeko gastuen %70era arteko diru-laguntza ematen da; bigarrenean, enpresa sortzeko gastuen zati bat, negozio-lokalaren alokairua eta langileen kontratazioa.

**2017ko hornidura: 750 000 €**

**Diruz lagun daitezkeen gastuak:**
- Enpresa berri baten sorkuntza.
- Badagoen enpresa batean lehiakortasuna hobetzeko proiektuak garatzea. Proiektuok enpresaren dibertsifikazio nabarmena ekarriko duen negozio-ildo berria edo produktu/zerbitzuaren estandarizazioa edo eskalagarritasuna ahalbidetuko duena izan beharko dute.
- Badauden enpresek nazioarteko merkatuetan garatutako produktuen merkataritza zabalkundea.
- Bizkortze-proiektuen garapena.
- Gaitasun profesionalak eta enpresen fakturazioa edota lanpostuak gehitzeko aukera ematen duten proiektuak garatzea.

## Creative Bizkaia

Aid promoted by the Department of Economic and Territorial Development to promote new projects in creative companies specialised in industrial design, audiovisual, video games, and fashion.

Such projects may be driven by existing companies, but also by newly created teams. In the first case, up to 70% of the development costs of the project are subsidised; in the second one, part of the constitution of the company, the letting of business premises and the recruitment of personnel.

**2017 Budget: €750,000**

**Expenditures eligible for subvention:**
- Creation of a new company
- Development of projects to improve competitiveness in an existing company consisting of a new line of business that involves a clear diversification of the company's activity or in a project that allows product / service standardisation or business scalability
- Commercial launch of products already developed in international markets by existing companies
- Development of acceleration projects
- Development of projects to increase professional skills and the turnover and / or employment of companies



*"Startup bat sortzen hasten zarenean enpresa eratzeko gastuak daude, jarduerarekin zerikusirik ez dutenak, eta jasanezinak dira... Ekintzaile bat enpresa bat sortzen hasten denean ideia eta bere helburuetara heltzeko plana besterik ez dauzka; honelako laguntzarik gabe amets asko ez lirateke gauzatuko".*

Saioa Goitia,
Sophie et voilá-ko zuzendari nagusia

*"When you start to create a startup there are business creation expenses that are impossible to support... when a creative starts a business project there is only an idea and a plan on how to reach your goals, without this kind of help many dreams would never come true."*

Saioa Goitia,
Managing Director of Sophie et voilá

## Gizarte berrikuntza

Gizarte Ekintzailetza eta Berrikuntza foru programak, proiektu jakinen garapena eta gizarte enpresa edo erakunde berritzaile berrien sorkuntza bultzatzen du.

Kasu biotan Aldundiarentzat gizarte kontzeptua bezain garrantzitsua da enpresa-berrikuntzarena: gizarte arazo edo beharrizan bati konponbide berritzaileak eskaintzen dizkieten proiektuak bultzatzen dira.

**2017ko hornidura: 400 000 €**

**Diruz lagun daitezkeen gastuak:**
- Gizarte proiektu berritzaileen garapena.
- Enpresa berrien enpresa-plana zehaztea eta garatzea.
- Gizarte enpresa edo erakunde berritzailea sortzea.
- Enpresa abian jartzea eta zabaltzea.
- Bidaiak eta azoketara joatea.
- Jabetza intelektual edo industrialaren babesa, erregistroak, ziurtapenak eta homologazioak.
- Bizkaian negozio-lokal bat alokatzea.
- Marketin plana.
- Negozioa garatuko duen pertsona kontratatzea.

## Social Innovation

The Provincial Programme for Entrepreneurship and Social Innovation supports the development of concrete projects, but also the creation of new companies or innovative social entities.

For the Provincial Council, both concepts, the social and the innovative business one, are equally important: they support projects that offer innovative solutions to social problems or needs.

**2017 Budget: €400,000**

**Expenditures eligible for subvention:**
- Development of innovative social projects
- Definition and development of the business plan for new companies
- Constitution of the new company or innovative social entity
- Start-up and launch of the company
- Travel and fair attendance
- Protection of intellectual or industrial property, registration certificates and approvals
- Letting of a business premise in Bizkaia
- Marketing plan
- Hiring a business developer



*"Gizarte berrikuntzarekin zerikusia duten proiektuek oso ADN berezia dute. Proiektu bati ekitea berez abentura arriskutsua bada, gizarte berrikuntzaren alorrean egitea are arriskutsuagoa da. Baina alor honetan ere proiektuak sortu behar dira. Etorkizunean bizi izango dugun gizarte-mota proiektu horiek eta haien sustatzaileen lanak baldintzatuko dute.*

*Deialdi hain espezifikoak izatea ekintzailetzan dagoen heldutasunaren eta administrazio publikoen sentikortasunaren adierazgarri dira".*

Jordi Albareda,
Fair Saturday-ko sortzailea

*"Social innovation projects do have a particular DNA. If entrepreneurship is a risky adventure in itself, the area of social innovation is extra risky. Sometimes it is even reckless, but it is necessary to produce projects in this area. The type of society in which we will live in the future will depend, to a large extent, on them and their promoters.*

*The fact that there are such specific calls is a sign of entrepreneurial maturity and sensitivity of public administrations."*

Jordi Albareda,
Founder of Fair Saturday

## Arrisku-kapitala

Abian jartzeko fasean startup eta enpresa berritzaileei laguntzeko Aldundiak sustatzen dituen finantzatze-bideen artean, arrisku-kapitaleko hiru funts daude.

Kapital-partaidetza eta mailegu hauek Bizkaiko Seed Capital sozietate publikoaren bidez kudeatzen dira eta enpresen ekimen berritzaileak sustatu, garatu eta finkatzeko dira.

Funts hauetariko batek berariaz bultzatzen du gizarte ekintzailetza eta berrikuntza, eta ETE berriei zein egon badaudenei zuzentzen zaie. 450 000 € arteko ekarpenak izan daitezke.

## Venture Capital

Among the various financing formulas promoted by the Provincial Council to support startups and innovative companies in their launch phase, there are three venture capital funds.

These equity participations and loans are managed through the public company Seed Capital of Bizkaia and are intended for the promotion, development and consolidation of innovative business initiatives.

One of these funds specifically promotes entrepreneurship and social innovation, and targets new SMEs and existing companies. Contributions can be up to €450,000



*"Bioteknologiaren sektoreak, hasierako abiatze-gune luzea behar du eta horrek esan nahi du tresna espezializatu garestiak, gaitasun handiko pertsonala eta osagai teknologiko handiko garapenak behar direla, produktua merkaturatu baino lehen kapital-injekzioak egin beharra sortuz. Hutsune hau ez da betetzen ohiko finantzatze-mekanismoekin, soilik bete daiteke sektorea ezagutu eta potentzial handia duten proiektuen aldeko apustua egiten duten arrisku-kapitaleko funtsekin".*

Ángel García Martín,
StemTek Therapeutics-eko zuzendari nagusia

*"Our sector, biotechnology, requires a long initial exit ramp that involves acquisition of expensive specialised equipment, highly qualified staff and developments with a high technological component, which have the necessary financial support before having the capacity to launch the product on the market. Conventional financing mechanisms do not take this risk as they want a guarantee that the project is not in a position to offer. It can only be covered by venture capital funds that know the sector and bet on those projects with potential. It is important to note that it is venture capital, betting without guarantee of success, but that without them the projects could not take off."*

Ángel García Martín,
General Manager of StemTek Therapeutics

# Ekintzaileek komunitate berritzaile baten akuilua behar dute aurrera egiteko

# Entrepreneurs must feel part of a community that encourages them to innovate

## Enpresak bizkortzea

Beazen enpresak Bizkortzeko zerbitzua bilakatuz joan da enpresa sortu berriei ere sarbidea emateko. Hasieran zerbitzua ON Bizkaia saria irabazten zuten enpresentzat eta hazteko gaitasuna zuten proiektuetarako bazen ere, 2017tik Enpresak Sortzeko programaren barruan dago.

Zure enpresa sortzeagatik diru-laguntza jaso baduzu, enpresak orain 4 lanpostu baino gehiago badauzka edo 100 000 € nahiz hortik gorako fakturazioa badu eta proiektu berritzaile bat baduzu, zeuk ere eska dezakezu Bizkortze zerbitzuaren laguntza.

## Acceleration

Beaz has an Acceleration service that has evolved with the idea of supporting also the newly created companies. Thus, if initially the service was intended for companies that won the ON Bizkaia Awards and for projects with growth capacity, since 2017 it is part of the Business Creation programme.

If you have received a grant for the creation of your company, if it currently has more than 4 jobs or a turnover figure equal to or greater than 100,000, and you have an innovative project, you can also request the support of the Acceleration service.



*"Bizkortze-prozesuari ekin genionean hasiera-hasierako etapan geunden, baina bagenuen produktuaren ideia eta baziren probatzeko prest zeuden bezero eragileak. Diruaz gain, gehien estimatzen duguna prozesuan izandako laguntza da. Eskainitako kontaktuak oso lagungarriak dira estrategiak zehazteko, hasierako bisitaldiak ezartzeko eta izan daitezkeen bazkideak bilatzeko".*

Iratxe Zuluaga,
Ariadna Grid/Merytronic-eko zuzendari nagusia

*"When we started the acceleration process we were at a very early stage, although we had the idea of the product and new about driving force customers willing to try it. In addition to financial aid, what we have valued most is the accompaniment in the process; the contacts that have help define strategies, establish initial visits, and search for potential partners."*

Iratxe Zuluaga,
General Director of Ariadna Grid/Merytronic

## EAG

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Beazek Ekintzaileei Arreta emateko Gune (EAG) gisa funtzionatzen du.

EAG bezala enpresa berrien sorkuntza errazten dugu, erantzukizun mugatuko sozietateen (SL) eraketa izapidetzerakoan leihatila bakar gisa jokatuz.

Horretarako, nahikoa da ekintzaileak beharrezko dokumentuak ekartzea, gero Beazek Dokumentu Bakar Elektronikoa osatu eta notaritzara bidal dezan, sinatu eta SLa eratzeko.

## PAE

As a result of an agreement signed with the Ministry of Economy, Industry and Competitiveness, Beaz works as a Point of Attention to the Entrepreneur (PAE).

As PAE we facilitate the creation of new companies, acting as single window when processing the creation of Limited Liability Companies.

You only have to provide the necessary documents so that Beaz complements the Single Electronic Document and sends it to the notary's office for the signature and constitution of the LLC.



*"Interesgarria da enpresa bat sortzeko hainbat bide egotea. Beaz bezalako erakunde baten laguntza azpimarratuko nuke, egin behar dituzun urratsetan gidatzen zaituelako, notarioekiko harremanak, erregistroa, etab. erraztuz. Denbora eta inbertitutako dirua optimizatzen da".*

Ager Etxeandia,
Euroblanks surf products SL

*"It is interesting to have different ways to create a company, and I would highlight the help provided by Beaz guiding you in the steps you have to follow, and giving you contacts with notaries, registry offices, etc., it optimises the time and money invested."*

Ager Etxeandia,
Euroblanks surf products SL

## Mentoring

Bizkaia Mentoring Network enpresa-aholkularien sare bat da eta ekintzaileen eta ETEen esku jartzen du lanbidean ibilbide luzea duten profesionalen jakintza eta esperientzia.

Zerbitzu hau hazkunde handia izateko gaitasuna duten proiektuak garatzen ari diren startupentzat, eta 6 urte arteko antzinatasuna edo 10 langile baino gutxiago daukaten ETEentzat pentsaturik dago.

Lankidetza-eredu honek zure enpresaren proiektua bizkortu nahi du eta batera bultzatzen dute Beaz, Cebek, Deusto Business Alumni eta Euskalit erakundeek.

## Mentoring

Bizkaia Mentoring Network is a network of business mentors that provides the entrepreneurs and SMEs with the knowledge and experience of professionals with a wide experience.

It is a service designed for startups who are developing projects with high growth potential and for SMEs up to 6 years old or with less than 10 workers.

A collaboration model that seeks to accelerate the project of your company, jointly promoted by Beaz, Cebek, Deusto Business Alumni and Euskalit



*"Mentoring zerbitzua behar genuen unean heldu zen. Nazioarteko lehen esperientziei aurre egiten ari ginen eta zalantzak genituen jarraitu beharreko estrategiari dagokionez. Gainera, negozio-ildo berri bat zabaltzen ari ginen. Esperientzia duen eta inplikatuta izateaz gain laguntzeko gertu dagoen beste pertsona baten ikuspegia izatea funtsezkoa izan da".*

Fernando Presa,
Nexmachinako sortzaile eta zuzendari nagusia

*"The Mentoring service came at the right moment. We were facing our first international experiences and were doubtful about the strategy we should follow and its implications. We were also opening a new business line. The point of view of an experienced person who gets involved and is willing to help has been essential."*

Fernando Presa,
Founder and General Director of NextMachina

## Elkarlanean finantzatzeko aholkularitza eta laguntza

Beazen dirulaguntza-mapa zerbitzuak, startup, ETE edo ekintzaile batek izan ditzakeen finantzatze-aukeren berri ematen du eta aholkularitza eskaintzen du.

Aukera horiek hainbat erakunderen diru-laguntzak edo bestelako kapital-ekarpenak izan daitezke. Horretarako, Beazek lankidetza-hitzarmenak ditu CDTI, Enisa, Icex, Crecer + eta B Venture-rekin, eta partaidetza dauka Basque Fondo-n eta Seed Capital Bizkaian. Gainera, I+G+b eta teknologia berrikuntzaren ziozko kenkariek eskaintzen dituzten aukera eta zerga abantailen berri ematen dugu eta, Ogasun Sailarekin daukagun hitzarmena dela-eta, kalifikazio-txostenak egiten ditugu, doanekoak eta lotesleak.

## Co-financing advice and support

The "Aid Map" service of Beaz informs and advises on different financing options that startups, SMEs or entrepreneurs are eligible for.

Such options may be subsidies from different institutions or other capital contributions. Beaz has collaboration agreements with CDTI, Enisa, Icex, Crecer +, B Venture, and participates in Basque Fondo and Seed Capital Bizkaia. We also inform about the possibilities and tax advantages offered by R&D&I and technological innovation deductions, and issue qualifying reports, free and binding, under an agreement with the Department of Finance.



*"Funtsezkoa iruditzen zait proiektuaren hasiera-hasierako fasetik ematen den laguntza. Lehenengo eta behin, ekintzaile-taldeari konfiantza emanez, (zure ideian konfiantza duen kanpoko norbait); bigarrenik, prozesuaren fase guztiak gauzatu ahal daitezen tresnak emanez. Prototipoa garatu eta merkatuan testa egiteko lehen urratsetatik, haz dadin finantziazioa bilatu arte, inbertsiogile publiko zein pribatuekin bilerak sustatuz eta mentore gisa izan ditugun ekosistemako beste kide batzuekin harremanetan jarriz".*

Ruth Guerrero,
Decoramus Network-en sortzailea

*"I think it is essential the support made from the embryonic stage of the project. First, generating confidence in the entrepreneurial team (someone external who trusts your idea); secondly, providing them with tools to make that embryo a reality in all phases of that process. From the first steps of development of the prototype and test in the market, until once the product has been tested, helping in the search of financing to make it grow, promoting meetings with investors, both public and private, and connecting with other members of the ecosystem that have served us mentors."*

Ruth Guerrero,
Founder of Decoramus Network

## Open Innovation

Bizkaiko Foru Aldundiak berrikuntza irekiko zenbait ekimen bultzatzen ditu enpresa erreferente eta startupen arteko elkarrekintza bultzatzeko.

Horrela ikuspegi berri bati eusten dio, hau da: berrikuntzak irekia behar du izan, bestela ez da berrikuntza. Horretarako sustatzen dituen ekitaldi eta ekimenetan pertsona eta antolakunde ezberdinak elkartzen dira lankidetza-aukerak sortu ahal daitezen. Hauxe da gaur egun zabalik dauden Bizkaia Open Future_ eta BIND 4.0. programen kasua.

Horien bitartez berrikuntza-prozesu aberatsagoak bilatzen ditugu, eta interesgarriagoak enpresa handientzat –horrela arinago ekin ahal diete berrikuntza eta dibertsifikazio prozesuei–, zein startupentzat –merkatuko presentzia indartzea lortzen dute.

## Open innovation

The Provincial Council of Bizkaia promotes different open innovation activities that favour the interaction between reference companies and startups.

It supports a new perspective that holds that innovation can only be open. With this in mind, it promotes events and initiatives that bring together different people and organisations among which opportunities for collaboration may arise. This is the case of the Bizkaia Open Future_ and BIND 4.0 programmes that are currently open.

With them, we look for richer innovation processes, but also more interesting for large companies - which can more quickly address innovation and diversification processes - and for startups- which strengthen their presence in the market.



*"Prozesuak ideia landu eta bezeroa ondo ezagutzeko balio du. Hau funtsezkoa da irabaziko duen proposamena lortzeko, bezeroaren beharrizanekin bat etorriz eta balio gehigarria emanez".*

Gorka Rodrigo,
Irontec-eko bazkide sortzailea eta merkataritza zuzendaria

*"The process serves to refine the idea and to generate good customer knowledge. This is essential to make the right proposal, aligned with the needs of the client and providing extra value."*

Gorka Rodrigo,
Founding Partner and Commercial Director of Irontec

## Nazioarteko nodoak

Aldundiak sustatzen duen "Bizkaia munduarekin konektaturik" estrategiaren barruan, zenbait hitzarmen sinatu dira bertoko startupak nazioarteko merkatu, sare eta inbertsiogileekin lotzeko.

Hauxe da Bostonen kokatuta dauden MassChallenge eta Cambridge Innovation Center (CIC) bizkargailuen kasua.

Lehena beren negozio-eredua pres-tatzeko hasierako fasean dauden enpresak bultzatzeko pentsaturik dago eta MassChallenge-Biscay lehiaketaren bidez gauzatzen da. Horren barruan Bostonen astebeteko egonaldia eta MassChallengeren munduko egoitzaren batean lau hilabeteko bizkortze-aldia egiteko aukera dago.

CICi dagokionez, esperientzia sei hilabetez luzatzen da, coworking-gune batean hainbat baliabide eta kontaktu-sarea eskainiz.

## International Nodes

In the frame of the "Bizkaia connected to the world" strategy, promoted by the Provincial Council, several agreements that intend to link local startups with markets, networks and international investors have been signed.

It is the case of the collaboration agreements signed with MassChallenge and Cambridge Innovation Center (CIC) accelerators, both located in Boston.

The first is intended to support companies that are in an early stage of development of their business model and is articulated through the MassChallenge-Biscay contest which includes a week's stay in Boston and the possibility of opting to a four month acceleration period in one of the worldwide headquarters of MassChallenge.

In the case of CIC, the experience goes on for six months in an intensive process of acceleration in a coworking space that puts at your disposal numerous resources and a network of contacts that will help your business projects grow and enhance its overall impact."



*"Cambridge/Bostoneko ingurura joateko aukera izateak eta bertan sei hilabetez egoteak komunitatean ezin hobeto txertatzea ahalbidetu digu: ekosistemako jokalaririk garrantzitsuenekin kontaktuak egin, bezero eta banatzaileekin merkataritza harremanetan jarri eta, batez ere, handikiro pentsatzen lagundu digu. Geure helburuak nabarmenki aldatu ditugu eta orain urrunagora eta arinago hel gaitezkeela uste dugu".*

Enrique Aguilera,
Quarizmi AdTech-eko zuzendari nagusia eta kide sortzailea

*"Having access to an environment like Cambridge / Boston, being there for 6 months has allowed us to integrate perfectly into the community, make contacts with the most important players of the ecosystem, establish business relationships with customers and distributors and, above all, it has helped us to think bigger. We have essentially changed our goals, and we believe we can go further and faster."*

Enrique Aguilera,
CEO and co-founder of Quarizmi AdTech

# Inkubagailuak
# Incubators



## Enpresa berritzaile berriei lekua ematea, bidea erraztea eta laguntzea lehentasunetako bat da

## Hosting, facilitating the way and accompanying new innovative companies is a priority

Bizkaiko Inkubagailu sarean dauden ehun enpresa baino gehiagok 566 lanpostu sortu dituzte eta 28 milioi euro fakturatu dituzte 2016. urtean. Zortzi haztegi daude inguru egokia sortzeko helburuarekin, startupek beren negozio eredua egiaztatu, elkarri eragin, ikasi eta beren proiektuak bizkor ditzaten. Zuretzat ere badago lekua! Aldundiarentzat ekintzailetza bultzatzea lehentasunezko bidea da Bizkaian enplegua eta hazkunde ekonomikoa bermatzeko. Horregatik, proiekzio globala izan dezaketen eta eskalagarriak diren enpresa berritzaileei lekua egitea, erraztasunak ematea eta laguntzeak berebiziko garrantzia du.

Helburu horiek enpresentzako inkubagailuetan gauzatzen dira. Inkubagailu hauek ez dira soilik oso prezio onean ekimen berriak kokatzeko lekuak, bizkortzeko inguruak baizik, beste startup batzuekin, enpresa eragileekin eta jakintza, aholkularitza edota finantziazio-alternatibak ekar ditzaketen inbertsiogileekin elkarrekiteko.

Asmoa da enpresa berriak bere ahalegin eta baliabideak batez ere bere negozio-eredua zehazten, produktu eta zerbitzuak garatzen eta merkatuan lekua lortzen egitea.

Aldundiaren inkubatze eta bizkortze sareak zortzi enpresa haztegi dauzka (beste eragile batzuekin elkarlanean bultzatuta), zenbait proiektu motarentzat pentsatuta, jarduera-sektore batean espezializatuta egon ala ez, eta heldutasun-maila desberdinekoak. Begiratu gure eskaintza!

The network of incubators in Bizkaia houses more than a hundred companies that have generated 566 jobs and invoice 28 million euros. Eight nurseries share the goal of creating a supportive environment in which startups validate their business model, interact, learn and see how their projects accelerate. There is room for you in all of them! For the Provincial Council support entrepreneurship is a priority route to guarantee employment and economic growth in Bizkaia. Hence, hosting, facilitating the way and accompanying new innovative companies that can have a global projection and are scalable, is a priority.

These objectives are defined in business incubators. Incubators understood not only as spaces in which new initiatives are located, at very competitive prices, but as acceleration environments that allow interaction with other startups, tractor companies, and agents that provide knowledge, advice and / or contacts with potential investors and financial alternatives.

The idea is that the new company focuses its efforts and resources to adequately define its business model, to the development of its projects and services, and to the area of market penetration.

The incubation and acceleration network of the Provincial Council has eight nurseries of companies (promoted in collaboration with other agents) designed for different types of projects, specialised or not in a sector of activity, and / or with different degree of maturity. These are our proposals:



## BIC Bizkaia

BIC Bizkaia teknologia bio-mikro-nanoetan, manufaktura aurreratuan eta teknologia garbietan espezializatutako inkubagailua da.

Aipatutako ekite-sektoreekin lotutako startup nahiz finkatuta dauden enpresa, ekintzaile eta sektore horiekin lotutako eragileentzat da.

Inkubagailua Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dago, 6000 m²ko eraikinean. Tamaina ezberdineko banakako moduluak, lantegiak, laborategiak eta toki komunak dauzka. Gainera, tutoretza eta bizkortze pertsonalizatu zerbitzuak, networking dinamikak, open innovation prozesuak, 3D printing gela, nazioarteko azoketan presentzia izatea, etab. eskaintzen ditu. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen dute inkubagailua, Bizkaiko Teknologia eta Zientzia parkearekin elkarlanean, eta Beazek kudeatzen du.

## BIC Bizkaia

BIC Bizkaia is an incubator specialised in bio-micro-nano, advanced manufacturing, and clean technologies.

Designed for startups, consolidated companies, entrepreneurs, and other agents related to these areas.

The stay time varies from 9 months available to entrepreneurs, to a 6 or 8 year period for startups and companies.

The incubator is located in the Technology and Scientific Park of Bizkaia, in a two floor building of 6000 m². It has individual modules of different sizes, workshops, laboratories and common areas. It also provides tutoring and personalised acceleration processes, networking, and open innovation processes, 3D printing room, attendance to international trade fairs, etc. It is promoted by the Provincial Council of Bizkaia with the collaboration of the Basque Government, and it is managed by Beaz.



## BIC Bizkaia Ezkerraldea

BIC Bizkaia Ezkerraldea inkubagailua Barakaldon dago eta haren helburu nagusia Ezkerralde, Meatzalde, Erandio eta Alonsotegi eskualdeetako enpresa ekimen berritzaileei laguntza ematea da.

Barakaldoko Ilgner eraikinean kokatuta dago eta 2500 m²ko azalera dauka: 54 enpresa modulu, erabilera komuneko guneak eta zenbait prestakuntza ekimen eta bilerak egiteko auditorioa.

BIC Bizkaia Ezkerraldea bere ingurua (Ezkerraldea-Meatzaldea) eraldatzeko eragilea da, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatua.

## BIC Bizkaia Ezkerraldea

BIC Bizkaia Ezkerraldea is an incubator designed to support innovative business initiatives in the areas of Ezkerraldea, Meatzaldea, Erandio and Alonsotegi.
It is located in Barakaldo, in the Ilgner building; it provides 2,500 m², which house 54 business units, common areas, and an auditorium that hosts different initiatives and meetings.
It is promoted by the Basque Government and the Provincial Council of Bizkaia.



## Design Kabi

Design Kabi coworkingerako gune orokorra da, negozioa definitu eta zehazteko fasean daukaten proiektuetarako.

Fisikoki 200 m²-ko lekua da eta aldi berean 41 lanpostu eduki ditzake. Tresna eta zerbitzu partekatuak, prestakuntzarako lekua, bilera-gelak, etab. dauzka.

Beazen dago kokatuta eta bertan egoteko epea hilabete bat eta bederatzi bitartekoa da, beste bederatzi hilabetez luzatu daitekeena.

## Design Kabi

Design Kabi is a coworking space for business projects in the process of definition and consolidation.
It is an open space of 200m² that can accommodate over 41people at the same time, and offers shared equipment and services, as well as training, meeting and networking areas.
Located in Beaz, the length of stay varies between one and nine months, extendable to a further nine.



## DeustoKabi

Deustuko Unibertsitatean sortutako teknologia oinarriko unibertsitate spin-offentzako enpresa-haztegia.

Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatean kokatuta dago eta $500m^2$ko enpresa moduluak dauzka; gainera, ekintzailetza gela, bulegoak, bilera gelak eta aurre-inkubazio gunea dauzka.

Gainera, laguntza eta segimendua eskaintzen du enpresa sortzeko fase guztietan, trebakuntza, DeustoTech-ekiko harremana eta ESIDEren laborategietara.

## DeustoKabi

Incubator for technology based companies, designed for university spin-offs, arised from the University of Deusto.

Located in the Faculty of Engineering of the University of Deusto, it has 500 $m^2$ of business modules, plus an entrepreneurial room, offices, meeting and pre-incubation areas.

It also offers support and monitoring in all phases of business creation, training, relationship with DeustoTech and access to ESIDE laboratories.



## KBi Digital

KBi Digital ekintzailetza digitaleko proiektuetarako inkubagailu aurreratua da eta Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin kudeatzen dute.

Gailu mugikorretarako aplikazioen garapenean, ikus-entzunezko ekoizpenean, interneten oinarritutako negozioetan eta bideo-jokoetan lanean ari diren startup, enpresa, pertsona ekintzaile eta freelancer-entzat pentsatuta dago.

Matikoko Auzo Factory eraikinean kokatuta dagoen inkubagailu honek bertan lan egiten dutenen esku jartzen du $740m^2$ko gunea, trebatzeko eta bizkortzeko zenbait zerbitzu pertsonalizatuz gain.

KBi Digitalen egoteko epea sei hilabete eta lau urte bitartekoa da.

## KBi Digital

KBI Digital is an advanced incubator for digital entrepreneurship projects, promoted jointly by the City Council of Bilbao and the Provincial Council of Bizkaia.

It is designed for startups, enterprises, entrepreneurs and freelancers working in the development of mobile applications, audiovisual productions, internet-based businesses, and video games.

Located in the Auzo Factory building in Matiko, the incubator offers a working area of $740m^2$, in addition to other training and personalised acceleration services.

The stay time in KBi Digital varies between 6 months and 4 years.



## Zitek UPV /EHU

EHUren Bizkaiko Campusean ekintzailetza kultura eta unibertsitate enpresen sorkuntza bultzatzeko ekimena.

Hiru haztegi dauzka, Bilbon, Leioan eta Portugaleten.

Haztegietara sartu ahal izateko baldintza nagusiak UPV/EHUrekiko lotura izatea eta proiektu berritzaile eta bideragarria edukitzea dira.

Garatze-fasean dauden proiektuak urtebetez ekintzailetza gelan egoten dira; enpresa eratu ondoren inkubazio moduluetako batera joaten dira bertan bost urte arteko epea emateko.

Zitekek ekintzailetzaren kultura sustatzeko hainbat ekintza antolatzen ditu eta, horren ondorioz, 2015ean Enpresa Sustapenerako Europako Sari Nazionala irabazi zuen.

## Zitek UPV /EHU

Zitek is an initiative to promote entrepreneurial culture and the creation of university companies in the UPV/EHU Bizkaia Campus.

It has three nurseries located in Bilbao, Leioa and Portugalete.

Applicants should be linked to UPV/EHU, and have an innovative and feasible project.

The projects still under development, can access for one year to the Entrepreneurship room; once the company has been constituted, they join one of the incubation modules for up to 5 years.

Zitek also develops several activities to promote entrepreneurial culture, a fact that was worth the 2015 National European Award for Business Promotion.

# Helburua: konektatu
# Objective: connect

## Ekintzailetzaren profila

Urtero Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza ematen die ehunka ekintzaile eta startupi hainbat zerbitzu eta laguntza eskainiz, zuzenean nahiz ekintzailetza sistemako eragile publiko eta pribatuekin elkarlanean kudeaturik.

Halaber, urtero azterketak egiten dira enpresa berrien eta haien bultzatzaileen profila sakontzeko eta ematen zaizkien laguntzen eraginkortasunaz hausnartzeko.

Beazek bildu dituen azken datuen arabera, azken 5 urteotan sortutako enpresa berritzaileen %82,5ak jardunean jarraitzen du. Batez beste, haien fakturazioa milioi bat eurotik gorakoa da, 6,5 langile dauzkate eta kapital soziala 166 600 €-koa da. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Beazen bitartez lagundu dituen proiektuek, batez beste, 56 000 €-ko diru-laguntza jaso zuten eta ekonomian egindako itzulkina 20 aldiz biderkatu dute.

EAEko 2016ko Global Entrepreneurship Monitor-ek (GEM) adierazten duenez, gainera, proiektu bati ekiten dionak oro har aukera ikusi duelako (gehienbat zerbitzuen sektorean) eta autonomia nahi duelako egiten du. Unibertsitateko prestakuntza duen profesionala izaten da, 40 urte ingurukoa, negozio-nitxo bati buruz ideiak argi dituena. Haren kexka nagusia porrot egitea da eta EAEn ekintzaileentzat dauden politika, programa eta azpiegiturei dagokienez egiten duten balorazioa bikaina da.

Hala eta guztiz ere, GEMek egiten dituen gomendioen artean gazte ekintzaileei ematen zaien laguntza handitzea dago, eta honetan badute zerikusirik hezkuntzak, prestakuntzak eta komunikabideek.

Barrixe, Bizkaiko Berrikuntzaren Behategiak egindako Norabidea ikerlanaren eta aurreTIK inkestaren arabera, elkarlana zabalduen dagoen ingurua enpresa berritzaileena da.

Helburua bide horretatik jarraitzea da: eragile guztiak konektatzea, Bizkaia berrikuntzarako eremu emankorra izan dadin eta ekintzaile guztiei mundua mugiaraz dezaten euren euste-puntua eskaintzeko.

## The Profile of Entrepreneurship

Each year, the Provincial Council of Bizkaia supports hundreds of entrepreneurs and startups, offering them a wide range of services and grants which are managed directly and in collaboration with other public and private agents of the entrepreneurial ecosystem.

Also, studies that seek to delve into the profile of the new companies and those who promote them and reflect on the effectiveness of the support provided, are also carried out on an annual basis.

According to the latest data gathered by Beaz, 82.5% of the innovative companies created in the last 5 years, are still active. On average, their turnover exceeds one million euros, they have employed 6.5 people, and have a social capital of € 166 600. The projects supported by the Provincial Department of Economic and Territorial Development, through Beaz, received on average a subsidy of € 56 000 and have multiply by 20 their economic return.

The Global Entrepreneurship Monitor (GEM) of the Basque Country 2016 indicates that entrepreneurs usually do so because they detect an opportunity (usually in the service sector) and long for autonomy. We are talking about a professional with university education, around 40, and with clear ideas about a business niche. Their main fair is failure and their valuation of the policies, programmes and infrastructures to entrepreneur in the Basque Country, is outstanding.

This does not prevent the recommendations suggested by the GEM from including boosting the support for youth entrepreneurship, which also concerns education, training and the media.

According to the Norabidea study and the aurreTIK survey, produced by Barrixe Bizkaia Innovation Observatory, cooperation is a widespread practice in the context of innovative enterprises.

The objective is to follow this model: to connect all agents to turn Bizkaia into a productive land for innovation and a supporting point from where every entrepreneur can move the world.

Bizkaia
beaz

Sabino Arana, 8
48013 Bilbao
Tel.: 944 395 622

beaz@bizkaia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, mesedez ikusi

For more information, please visit

**beaz.bizkaia.eus**

Aurkituko gaituzu:
Find us in: